# Berri-Otxoak-ek kanpaina berri bat hasi du, prestazio sozialei buruzko bulegoa oporren ostean zabalduko
2018/09/06




Uda pasa ondoren, Berri-Otxoakek prestazio sozialei buruzko bulegoa irekiko du datorren irailaren 17an. Bulegoa astelehenero irekiko dute 11:00etatik 13:00ak arte eta bertan jendea informatuko dute Lanbidek zein Barakaldoko udalaren esku dauden prestazio sozial ezberdinei buruz. Irekiera iragartzeko Berri-Otxoakek kanpaina bat abiarazi du, 28.000 esku-orri argitaratu ditu: buzoietan zein metro geltokietan banatuko direnak. Nabarmendu dute kanpaina hau egiten dutenean, bulegora hurbiltzen den jendea gora egiten duela. Horrek kanpaina garrantzitsua eta eraginkorra dela erakusten duela azpimarratu dute, baita ere agerian geratzen dela instituzioen borondate eza herritarrak prestazioei buruz informatzeko.

**alt=""
swfobject.embedSWF('http://www.youtube.com/v/e3RfidfYt7c','avreloaded0','400','320','9.0.28','/plugins/content/avreloaded/expressinstall.swf',
{autoplay:'0',color1:'0xFFFFFF',color2:'0x000000',rel:'0',egm:'0',border:'0',loop:'0'},{wmode:'window',bgcolor:'#FFFFFF',menu:'true'},{id:'p_avreloaded0',styleclass:'allvideos'});**